AKTA 7 ACTA 7

2008KO APIRILAK 24 24 DE ABRIL DE 2008

ORGANOA: UDAL BATZARRA
ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIZKOA
SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008KO APIRILAK 24
DIA:24 DE ABRIL DE 2.008

HASIERA ORDUA: 19:00
HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.
PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK
CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNANUE
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

EZ DIRENAK BERTARATU:
NO ASISTEN:

Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA
SECRETARIO

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du.

Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (2008.01.31; 2008.02.12 eta 2008.03.26).**

1.- APROBACION DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, SI PROCEDE: (31.01.2008; 12.02.2008 y 26.03.2008).

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon denoi, Ohizko Plenoari ekingo diogu, gaur Apirilak hogeitalau, osteguna, arratsaldeko zazpirak eta ia laurden diren honetan,

Aurrenengo puntua beti bezala, **AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA**, norbaitek zerbait esatekorik, baldin badu ?

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, M. Eugenia.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, arratsaldeon. Aurrekoan komentatu nuen bezala, eta transkripzio literala izanik, eskaera bat luzatzen dut, -dagoeneko idazkariari pasa dizkiot aktak-, nire interbentzioen hitzak bere horretan utzita baina komak eta puntuak eta horrelakoak aldatuta.

IDAZKARIA: Ostegunean, ibili gara berriro ere sonidoa erregulatzen eta ez dakit asmatu dugun, mikrofonoak akoplatu egiten dira.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Dena den, horrela egin beharko dugu, bestela esaten duguna ez da jasotzen eta.

Azaltzen ari nintzen bezala, nire interbentzioetan ortografia puntuazioak lekuz aldatu ditut. Ontzat ematen baldin bada, eskatuko nuke ofizializatuko diren aktetan horrela jasotzea.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ondo, Beste norbaitek, zerbait esatekorik? ezerrez.

ERABAKI ZATIA

Aho batez,
ERABAKI DA:

2008.01.31; 2008.02.12 eta 2008.03.26ko Udal Batza Osoko bilkuretako aktak onartzea.

PARTE RESOLUTIVA

Por unanimidad,
SE ACUERDA:

Aprobar las actas de las sesiones anteriores, de fecha 31.01.2008; 12.02.2008 y 26.03.2008.

**2.- <u>HERRITARREN PARTAIDETZA:</u>**

**BATZORDE BERRIEMAILEETAN HERRITARREN PARTAIDETZA AHAL BIDETZEA.**

2.- <u>PARTICIPACION CIUDADANA:</u>

PARTICIPACION CIUDADANA EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bigarren puntua **HERRITARREN PARTAIDETZA:**
**BATZORDE BERRIEMAILEETAN HERRITARREN PARTAIDETZA AHAL BIDETZEA.**
Dakizuen bezala Diktamen bat daukagu. Herritarren Partaidetza batzordean dagoeneko diktaminatu dena eta jarraian irakurriko dut, bertan diktaminatu zena:

AURREKARIAK

Udal Gobernu Taldeak, Batzorde Berri emaileetan herritarren partaidetza bultzatu

ANTECEDENTES

La Comisión de Gobierno quiere impulsar la participación ciudadana en las comisiones

nahi du.

Udal Idazkariak 2007ko abenduan luzaturiko txostenaren arabera Udal Gobernu Taldeak batzordean ondorengo proposamena aurkezten du.

UDAL GOBERNU TALDEAREN PROPOSAMENA, BATZORDE BERRI EMAILEETAN HERRITARREN PARTAIDETZA AHAL BIDERATZEKO.

Herritarren Partaidetza Batzordean azaldu bezala eta Idazkariaren txostenarekin bat, ondorengoa proposatzen dugu:

.- Zumaiako Udalean ordezkaritza duten talde politiko eta kualizio guztiek bina ordezkari izendatzea Udalean eratuta dauden bederatzi Batzorde Berri Emaileetan parte har dezaten.

1.-HIRIGINTZA ETA INGURUMENA.

2.- ZERBITZUAK.

3.- OGASUNA.

4.- PERTSONALA.

5.- EUSKARA eta -HEZKUNTZA.

6.- KIROLAK.

informativas.

De conformidad al informe emitido por la Secretaria Municipal de fecha diciembre de 2007, la Comisión de Gobierno presenta la siguiente propuesta.

PROPUESTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO, PARA POSIBILITAR LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS

Tal como se expuso en la Comisión de Participación Ciudadana y conforme al informe de la Secretaria, proponemos lo siguiente:

.- Que cada una de las fuerzas políticas con representación en el Ayuntamiento de Zumaia designe dos representantes para participar en las nueve Comisiones Informativas formadas en el Ayuntamiento.

1.- URBANISMO Y MEDIOAMBIENTE

2.- SERVICIOS

3.- HACIENDA

4.- PERSONAL

5.- EUSKARA Y EDUCACIÓN

6.- DEPORTES

7.- KULTURA, TURISMOA ETA MERKATARITZA.

8.- GIZARTE ZERBITZUAK.

9.- HERRITARREN PARTAIDETZA, ETORKINAK, BERDINTASUNA ETA GAZTERIA.

.- Izendapen hauek batzordeko gaietan “adituak” edo ezagutza duten herritarren alde izan behar dute.

.- Izendapenaren iraupena: izendatutako alderdiak errebokatzen duen artekoa izango da.

.- Zinegotziak ez diren ordezkariek Batzordean ahotsa izango dute, baina boturik ez.

.- Talde Politiko bakoitzak bozemaileren bidez bere taldearen ordezkarien izenendapena Plenoari jakinaraziko dio.

.- Batzordearen funtzionamenduari dagokionez Udalak onartutakoa ( bileren eguna, ordua, kideak ) eta ROF-a da aplikagarria , deialdieri dagokionez, jakinarazpenak, quorum-a, etbr...

Ondorioz, Herritarren Partaidetza Batzordeak erabaki

7.- CULTURA, TURISMO Y COMERCIO

8.- SERVICIOS SOCIALES

9.- PARTICIPACIÓN CIUDADANA, INMIGRACIÓN, IGUALDAD Y JUVENTUD

.- Estas designaciones deberán ser a favor de ciudadanos que sean “expertos” o conocedores de los temas a tratar en las Comisiones.

.- Duración de la designación: hasta que el partido lo revoque.

.- Los representantes que no sean ediles tendrán voz, pero no voto.

.- Cada partido político dará cuenta en el Pleno de sus designaciones mediante los portavoces.

.- En lo referente al funcionamiento de las Comisiones, se aplicará lo aprobado en el Ayuntamiento (día de las reuniones, hora, participantes…) y lo señalado en el ROF: convocatorias, notificaciones, quorum, etc.

Acuerda con dos votos a favor y una abstención, someter a la

du:aldeko bi botuekin, eta abstentzio batekin, Udalbatzaren Osoko Bilkurara eramatea, han Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluak dioen bezala erabaki dadin, ondorengo PROPOSAMENA:

1.- Udal gobernu taldearen proposamena, batzorde berri emaileetan herritarren partaidetza ahal bideratzeko onartzea., udalak antolatzeko duen boterearen baitan.

2.- Udalean ordezkaritza duten talde edo kualizio politiko ezberdinek jakinarazi ditzatela beraien ordezkarien izendapenak.

consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo de conformidad al Art. 22 de la Ley 7/1985 de dos de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

1.- Aprobar la propuesta del equipo de gobierno para posibilitar la participación ciudadana en las comisiones informativas, dentro del poder que tiene el ayuntamiento para organizarse.

2.- Las fuerzas políticas con representación en el ayuntamiento darán cuenta de sus designaciones.

Honen ildoan, adierazi, ordezkarien jakinarazpenari dagokionez datorren Herritarren Partaidetzan ikusiko dugula, puntu bezala, gai bezala, bakoitzak astia izan dezan, erabakitzeko dauden batzorde ezberdinetan zein izen ekarri nahi dituen batzorde horietan aritzeko; ekarri nahi ez baldin badute baterez. Izen bat gehi ordezko bat.

Esan bezala datorren Herritarren Partaidetzan, bigarren puntu hori pixkabat zehazteko, diot, hor bertan erabakiko dugula eta izenak emango ditugula, alderdi politiko guztiak edo eman nahi dutenak. Honen ildoan zerbait esatekorik ? PNV.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, diktamena aztertu ondoren, bi aipamen okurritzen zaizkigu.

Alde batetik esaten da, batzorde informatiboetan benetako Herritarren Partaidetza, edo Herritarren Partaidetza ahalbideratzea dela neurri honen edo gaurko akordio honen asmoa. Eta hori baldin bada asmoa, ez dugu oso ondo ulertzen. Herritarren Partaidetza bultzatzea al da, alderdi politiko bakoitzak, batzorde bakoitzerako bi Komisario Politiko izendatzea?

Edo nahi baldin bada, fiñago esan ezkero, alderdi politiko bakoitzak, batzorde bakoitzerako bi aholkulari izendatzea? Gure ustez neurri horrek, alderdi politiko bakoitzaren ahotsa hirukoiztu egiten du, batzorde bakoitzeko, ez, bere horretan Herritarren Partaidetza bermatu.

Bestalde, berriz ere izenburura jota, partaidetza indartu nahi omen da batzordeetan, informatzaileak izan beharko luketen batzordeetan, berriz diot izan beharko luketen batzodeetan, ze.... orain artekoak ikusita, benetan informatzaileak izan al dira?

Horren adibide batzuk jarri ditzakegu: San Juan Egoitzarako zerbitzuen kontratazioarako lehiaketa abian jarri duzue, eta horren berri izan genuen non, eta boletinean, ez aurretik ez harrezkero ez diguzue inolako azalpenik eman horren inguruan, nahiz eta irailaren hogeitazazpiko plenoan, eta aktan jasota geratu zen, Alkateak agindu zuen Patronatuko hurrengo juntan planteatuko zuela Alderdi Politiko guztiei, ordezkaritza emateko Estatutu aldaketa. Ez dakigu, harrezkero Juntarik egon den ere, gaur arte.

Beste adibide bat. Gobernu Batzordeak, Ludoteka, Torre-Berrira aldatzeko asmorik ez zuela, komunikabideetan ikusi genuen. Udal Gobernuak 2008ko Ordenantza Fiskalen bere proposamenari emendakina sartzen ziola, hementxe bertan, eta bapatekotasunez plenoan jakin genuen. Udal Gobernuak haurreskola prefabrikatuak kontratatzeko lehiaketa onartua zuela Gobernu Batzordearen ondoren egin zen Plenoan jakin genuen eta kasualidadez, galdetu genuelako.

Eusebio Gurrutxaga plaza azpiko aparkalekuak, emakidan izango direnaren erabakia hartuta duzuela periodikoetan jakin genuen. Gaur bertan, komunikabideetan enteratu gara, Puntanuetako bigarrengo faseko Plan Partzialak onartzen dituen etxeetatik at, beste ehun egiteko asmoa duzuela eta bukatzeko eta hau ez ANV eta ez EA-ren ahotik edo eskutik baizik eta Ezker Batuak eta Aralarrek argitaratu duten prentsa ohar baten bitartez enteratu gara, baita periodikoetan, udaletxe honetako teilatuan eguzki plakak jartzeko asmoa duzuela. Beraz, zertarako batzordeetan partaidetza sustatu, Diario Vasco irakurtzea askoz egokiagoa baldin bada batzordeetara etortzea baino, udaletxean hartzen diren erabakieri buruz informazioa jasotzeko.

Edozein modutara gure botoa abstentzioa izango da puntu horretan.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: En principio no tenemos ningún tipo de problema. No sé siquiera si nombraremos a alguien que pueda venir a cada una de estas Comisiones. Entiendo que el representante

del Partido que actúa en cada una de las Comisiones, viene ya o debería de venir, en nuestro caso al menos lo procuro, con el asesoramiento necesario sin la necesidad de que venga el asesor de continuo. Si ése es el problema tampoco hay ninguna pega y por lo tanto, no nos importa mucho tanto si sale como si no, porque no sabemos muy bien si vamos a hacer uso de este tema.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ezker Batua – Aralar

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA: Guk ere ez dakigu erabiliko dugun edo ez, baino behintzat ondo ikusten dugu eta aldeko botua emango diogula, besterik gabe.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Gure aldetik nola ez aldeko bozka emango diogula esan eta nola ez Herritarren Partaidetza ez da hasten eta bukatzen, erabaki honekin eta proposamen honekin. Hau Herritarren Partaidetza modu zabalago batean ahalbideratuko duen formula bat da, baino ez da azkenengo urratsa, aurrenengoa da. Orain artean urratsak zentzu horretan emango ziren Agenda 21ean eta horrelako kontuetan, baina, prozesu horiek eman zituzten, eman zituztenak eta guk beste bide batzuk ere hausnartu nahi ditugu, horien artean, hau da bat.

Gure ustez, gaur egun Zumaiako udalean beste udaletxe askotan bezalaxe, atomizazio maila handia dago. Alderdi politikoak lau edo bost gaude orain hemen, zinegotziak bi, hiru eta lau gaituk/n, eta batzordeak bederatzi dira. Eta batzorde askotan gaur da eguna, non.... ba... bi zinegotzi, hiru zinegotzi, guztiak gauden batzordeak gutxi dira, batzorde berriemaileen segimendua, urria, eskasa da, eta horrek agian ere egingo du. Gauza denak ondo ez ditugu egiten eta gauza batzuetan arrazoia duzula onartu behar dugu, baino gauza batzuk bai esan dira, Batzorde berriemailetan, nahiz orain hemen esan ez direnaren, alegatoa egin duzun baino gauza batzuetan bakarrik duzu arrazoia.

Guk nahi duguna da batzorde berriemaile horiek aberastu, aniztasun punttu bat eduki dezatela eta guk behintzat komisario Politikoak ez ditugu eramango, guk eramango ditugu, gai, arlo bakoitzean zer aportatua duen jendea eramango dugu, zeren... ni behintzat ez naiz kapaza, nagoen batzorde guztietan aportazio berezirik egiteko, baino bai nahiko nuke nere aldamenean edukitzea pertsonak jakin badakidanak gai horietan badutela inkietude, formakuntza eta gogoa lan egiteko. “El que mucho abarca poco aprieta” esaten da eta nik uste dut asesoratzen utzi behar dugula gure burua, eta azkenean neurri batean ere betiko aurpegiak ikusten, pixka bat uste dut

denok aspertu ere egiten garela eta beste haize fresku bat eta batzordeetan beste jende bat egotea ere, ez dakit harreman batzuk, beste dialogo batzuk sustatzea eta sortzea interesgarria izango litzateke.

Bakoitzak ikusiko du Comisario Politikoak eramaten dituen edo aportatzeko gogoa duen jendea eramango duen, baino nik uste dut bertan entzun eta bertan ikasi ahal izango ditugula gauzak, batzorde bakoitzean zer aportatua duen jendea eramaten baldin badugu. Nik uste dut interesgarria izan daitekeela. Aurrenengo urrats bat da, ez da azkenengoa. Aurrekontuetan badaude partida batzuk, Herritarren Partaidetza bilatu eta sustatu nahi dutenak eta horiek ere pixkanaka aktibatzen joango gara, hau hasiera da, ez bukaera.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Partehartzeari dagokionez, gure aldetik, bi gauza adierazi.

Bat, parte hartzeko era asko daude eta hau da partehartzeko era mugatu bat. Nik uste dut ezberdintasun bat egin behar dela. Hau da, alderdi politikoena, - eta badakigu gero bakoitzak gure etxeetara joan behar izaten dugula esplikazio asko ematera normala den bezala-, alderdi politikoen partaidetza nolabait bermatzeko.

Beste gauza bat da Herritarren partaidetza bermatzea, baina bi ildo desberdin dira, eta guk bi ildo horiek dira hain zuzen ere bermatu nahi ditugunak. Orain bermatzen ari garena da ildo bat, alderdi politikoena bermatzea eta beste ildoari dagokionez, Herritarren partaidetza sustatzeari dagokionez, dagoeneko aurrekontuetan partida bat badaukagu, -horretan baita ere Ezker Batuak bere zeresana izan zuelako-, non partida baten bitartez Herritarren Partaidetza sustatu nahi dugun, horretan adituak diren jendearen bidez.

Bigarrena, San Juan Egoitzari dagokionez, San Juan Egoitzan dagoeneko, ez dakit, zenbat Junta izango ziren legealdi hau hasi denetik baina hiruzpalau bai, edo agian gehiago, bost izango ziren, gure nahia izan zen garai hartan eta da gaur egun, San Juan Egoitzan Estatutoak aldatzea.

Horrela adierazi zen San Juan Egoitzako aurrenengo Juntan, baina tartean gertatu ziren beste eztabaida batzuk, non ikusten den, udaletxeak bakarrik ordezkaritza ez duen, beste ordezkari batzuk ere badira, eta ordezkari horiek ere zalantzan jarri zuten, beraiek jarraitu beharko ote luketen edo ez. Horri helduta zai edo itxaroten egon behar izan dugu, beraiek zer erabakitzen zuten, benetan jarraitu nahi zuten edo ez zuten. Beraien erantzuna etorri da eta konkretuki Parrokoaren edo Elizaren figuraren partetik, badirudi ez dutela beraien burua gaur egun San Juan Egoitzan ikusten ze.... bere garaian sortu zen San Juan Egoitzaren helburuak zeharo desberdinak dira, gaur egun duten helburuarekin. Horren zain ere egon gara errespetuz, baino azkenengo Juntan adierazi bezala, -

hain zuzen oker ez baldin banago atzo edo herenegun izan genuen Junta-, Estatutuak dagoeneko datorren Juntarako horrela erabaki genuela gainera eramango dira bertara aldatzeko intentzioarekin.

Haurreskolari dagokionez, dagoeneko batzorde desberdinetan, Hirigintzako batzordean, Zerbitzutako batzordean aipatu izan ziren bere garaian haurreskolak, pausoz pauso zein bilakaera izango zuen, beraz, dagoeneko esan da daude.

Eguzki plakari dagokionez, ez da egia guk Udaletxean eguzki plakak jarriko ditugunik, baizik eta adierazi dugu, Eguzki Plakak jartzeko azterketak egiten ari garela.

Berdin Ludotekarekin, guk ez dugu esan ludoteka oraingoz behintzat, gero ikusiko dugu, baino ez dugu esan oraingoz Ludoteka hor joango ez denik, adierazpen bat izan zen, komunikazio bat izan zen, non esan zen, bertako langileak adierazten zutenez, ez zela tokirik egokiena, bertan Ludoteka egiteko.

Beraz, honi dagokionez eta Partaidetzari dagokionez, ezberdin du bi alde, alde bat Politikoa dela, Politikoena eta Alderdi Politikoen barruko Partaidetza bermatzeko ildoa jorratzeko zentzuan dihoala hau, eta Herritarren Partaidetza bermatzeko zentzua, hemendik gutxira baita ere martxan jarriko dugula. PNV.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Beraz, arrazoia ematen didazue, eta hau ez da Herritarren Partaidetza zuzenean sustatzeko neurri bat, nahiz eta izenburua horrela jarri diozuen, baizik eta alderdi politikoen partaidetza batzordeetan sustatzeko neurri bat, zinegotzi gutxi garelako alderdi bakoitzeko, batzorde asko direlako, beraz ulertzen dut aholkulari ez Comisario Politiko, aholkulari hauek etorri daitezkeela batzorde desberdinetara, nahiz eta bere alderdiko zinegotzia ez egon presente. Zeren horrelakorik ez zen adierazten. Bale, ba... aholkulariak batzordeetan azaltzeko neurri bat da. Ez Herritarren partaidetza zuzena sustatzekoa.

Bestaldetik, eguzki plakak Udaletxeko teilatuan jartzearena gezurra baldin bada, argitu diezaiokezu Ezker Batua eta Aralarrekoei.

Haurreskolakoa, harrezkero argitu zen, baita plenoaren hurrengo egunean ere jakin izan genuen galdera egin genuen Pleno hartan baina datu gehiago eta zehatzagoak, periodikoetan noski eta behin eta berriz gertatzen ari dena da, eta.... badakigu gauza guztietan eta beti asmatzea ez dela erraza izaten, baina.... Udaletxe berri honek, bueno.... hain berria ez den udaletxe honek,- bederatzi, hamar hilabete ez dakit zenbat daramatzan-, eta adibide gehitxo dihoaztela iruditzen zaigu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek zerbait esatekorik?

Bozkatzera pasako gara,  PNV-k ?

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA:  PSOE-k ?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ:   A favor.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde, Ezker-Batua, Aralarrek ?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA:  Alde.

ALKATE-LEHENDAKARIA:  Alde, ANV-k ?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA:  Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde eta EA-k ere  Alde.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 9 ( 3 ANV, 2 EA,  2 EB-Berdeak/ Aralar eta 2 PSOE )
Aurkako botuak :0
Abstentzioak: 3 (EAJ)

ERABAKI DA:

1.- Udal gobernu taldearen proposamena, batzorde berri emaileetan herritarren partaidetza ahal bideratzeko onartzea., udalak antolatzeko duen boterearen baitan.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 9 ( 3 ANV, 2 EA, 2 EB-Berdeak/ Aralar y 2 PSOE)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 3 (PNV)

SE ACUERDA:

1.- Aprobar la propuesta del equipo de gobierno para posibilitar la participación ciudadana en las comisiones informativas, dentro del poder que tiene el ayuntamiento para organizarse.

2.- Udalean ordezkaritza duten talde edo kualizio politiko ezberdinek jakinarazi ditzatela beraien ordezkarien izendapenak.

2.- Todas las fuerzas políticas con representación en el ayuntamiento darán cuenta de sus designaciones.

**3.- <u>MOZIOAK:</u>**

**3.1.- EB/B-ARALAR: LANEKO OSASUNAREN EGUNA DEN APIRILAREN 28ari BURUZKO MOZIOA.**

3.- <u>MOCIONES:</u>

3.1.- EB/B-ARALAR: MOCION SOBRE EL 28 DE ABRIL, DIA DE LA SALUD LABORAL

ALKATE-LEHENDAKARIA: Honenbestez, hirugarren puntuari ekingo diogu, mozioei dagokiona. Lehenengo mozioa, Ezker Batua – Aralarrek sartu duena, Laneko Osasunaren eguna den apirilaren hogeitazortziari buruzkoa.

Bai, mozio hori eta bai gero eztabaidatu behar duguna dagoeneko bozeramaileen batzordean ikusi dugu eta adierazi behar da bozeramaileen batzordea izan ondoren, aldaketa bat izan dela Ezker Batua Aralarrek aurkeztu duen mozioan. Hain zuzen ere, aurrenengo puntuari dagokionez bandera masta erdian jartzearenaren inguruan, puntu hori ezabatu egiten da. Hala ere Ezker Batua – Aralarrek argitzekorik zerbait gehiago ?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA: Ez, irakurri egingo dut mozioa:

**Laneko Osasunaren Eguna den apirilaren 28ari buruzko mozioa:**

Lan-baldintzek zeresan handia dute gizarte-baldintzak, eskubideak eta biztanleen osasun-egoera zehazteko orduan. Osasunaren helburuaren aurretik, gaur egungo lan-munduan, arriskua, zihurgabetasuna, kolokatasuna, ezbehar-tasa eta

**Moción sobre el 28 de abril día de la salud laboral:**

Las condiciones de trabajo, es uno de los factores determinantes para las condiciones salariales, derechos y estado de salud de la población. Por delante del objetivo de la salud nos encontramos con un mundo laboral que incrementa

esplotazioa areagotu dira.

Ezbehar eta gaixotasun profesionalak ez dira halabeharraren eta zorte txarraren emaitza, laneko prebentzio eskasaren adierazgarri baizik. Badago halako egoerak ekiditerik, bizitzaren eta osasunaren babesa lehentasuntzat hartuz gero. Laneko osasuna zaintzeko, era guztietako lan-arriskuei erantzun beharra dago honako arlo hauetan: segurtasuna, higienea, ergonomia eta esparru psikosoziala.

Enpresa-munduan garatu behar bada ere, ageri-agerikoa da gizartean eta osasunean bertan ere baduela eraginik. Hori dela eta, gure ustez, prebentzioa eta osasuna sustatzeko, ezinbestekoa da ekintza koordinatu zabala abian jartzea, zenbait mailatako administrazioetan, osasun-sektoreetan, sindikatuetan, enpresetan, gizarte zibilaren erakundeetan eta komunikabideetan. Lan-ikuskaritza funtsezkoa da, sindikatu eta patronalen jarduketa hitzartuarekin batera.

Euskadiko zenbait administraziok, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza

considerablemente el grado de riesgo, incertidumbre, precariedad, siniestralidad y explotación de las personas.

Los siniestros y enfermedades profesionales no son el resultado de la fatalidad, ni de la mala suerte, sino los que expresan una precaria prevención en el trabajo. Evitarlos es posible, si se asume como prioridad la protección de la vida y la salud. La salud laboral supone responder a los riesgos laborales de diferente naturaleza: de seguridad, higiénicos, ergonómicos y psicosociales en el ámbito de la empresa aunque es indudable que tiene una proyeccón sobre el conjunto de la sociedad y su salud.

Por eso entendemos que la prevención y promoción de la salud exigen una acción coordinada de las administraciones en sus distintos niveles, sectores sanitarios, sindicatos, empresas, organizaciones de la sociedad civil y medios de comunicación. La inspección de trabajo se convierte en un elemento fundamental junto a la actuación concertada de sindicatos y patronales.

Algunas administraciones en Euskadi como el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales

eta Gizarte Gaietako Sailak, Arabako Aldundiak edo Vitoria-Gasteizko Udalak, zenbait hitzarmen ezarri dituzte sektoreko sindikatu eta patronalekin, euren ardurapeko lanetan laneko osasunaren prebentzioko arazoei aurre egiteko.

del Gobierno Vasco, la Diputación de Alava o el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz han venido estableciendo acuerdos para abordar los problemas de prevención de la salud laboral en las obras bajo su responsabilidad con los sindicatos del sector y las patronales.

Laneko osasunaren esparru zabalean, sindikatuek lanbide-gaixotasunei eman diete lehentasuna, azken urteotan. Laneko istripuen mutuek onartu egiten dute laneko gaixotasunen bi heren gaixotasun arrunten azpian ezkutatzen direla. Horren ondorioz, gaixo eta senideenzako prestazioak galdu egiten dira, eta osasun-sistema publikoa gainezka dago.

Dentro del amplio campo de la salud laboral, las organizaciones sindicales vienen poniendo el acento en los últimos tiempos en las enfermedades profesionales. Las mutuas de accidentes de trabajo reconocen que los dos tercios de las enfermedades laborales quedan ocultas como enfermedades comunes lo que supone pérdidas de prestaciones para enferemos y familiares y sobre carga del sistema público de sanidad.

Apirilaren 28an, Langileen Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko eguna izango denez, Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioak (NSK-k) iaz mundu zabalean hildako 2 milioitik gora langileak gogorarazi nahi dizkigu, lan-baldintza eskasen eta enpresen prebentzio faltaren biktimak izan dira eta. Egun hori oso egokia da, laneko osasunaren prebentzioaren ezarpena eta lanbide-gaixotasunen, ezintasunaren edo laneko heriotzaren murrizketa eskatzeko.

Con motivo de la conmemoración el próximo 28 de abril del Día Internacional de la Seguridad y la salud de los trabajadores, la Confederación Sindical Internacional (CSI) nos anima a recordar a los más de 2 millones de trabajadores y trabajadoras muertos el pasado año a nivel mundial, víctimas de precarias condiciones laborales y ausencia de prevención empresarial. Esta fecha es el momento más adecuado para expresar nuestra exigencia de prevención de la salud laboral y por tanto que se reduzcan las

enfermedades profesionales, la invalidez o la muerte en el trabajo.

Hori guztiori dela eta, Ezker Batua Berdeak-Aralarrek honako mozio hau proposatzen du:

1.- Adierazpen instituzionala egitea, laneko osasuna defendatzeko, laneko prebentzioa eskatzeko, laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondorioz hildakoak gogoratzeko eta egoera hori salatzeko.

Por todo ello, Ezker Batua-Berdeak-Aralar propone lo siguiente:

1.- Hacer una declaracion institucional en defensa de la salud en el trabajo, de exigencia de prevención laboral, de memoria de los fallecidos por accidentes laborales y enfermedades profesionales y de denuncia de esta situación.

Bakarrik esan, aurkeztu dugun mozioan beste puntu hori zegoela Apirilaren 28an ba iaz hildako 2 milioi langile horien omenez haga erdian jartzea bandera, eta bozeramaileen batzordean beste alderdiak hala eskatuta kentzea erabaki dugu, besterik gabe.

ALKATE-LEHENDAKARIA:Eskerrikasko. Norbaitek zerbait esatekorik ? PNV.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, egia da berandutu egin zaidala gaur arratsaldean zeharo beste eginkizun batzuk nituen eta ezin izan naiz etorri bozeramaileen batzordera. Iritsi banintz bigarrengo puntua, bueno orain arte bigarrengo puntua zen banderaren hori aldatzeko eskatu behar nuen. Hain zuzen, Udal bandera jarri beharrean ikurrina jartzeko eskaera eginaz. Ez dakit bozeramaile batzordera etorri gabe, orain hemen galdetu dezakedan zein izen den puntu hori kentzeko arrazoia?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Izan ere Zumaiako udaletxean, ez da behinere ohiturarik egon banderak “a media asta” jartzekoa,- ez dakit euskaraz nola den- haga erdian. Eta denok konsziente gara herri honetan zenbait gauza eta zenbait gertakizun izaten diren eta horrek irekitzen du bide bat, non beste edozer gauza gertatzen dela ere, edozeinek eskatzeko berriz ere bandera haga erdian jartzekoa, ez?... Ohiturarik nola ez dagoen udaletxe honetan banderaren istorio hori aurrera eramateko, eskatu dena da

bide hori ez irekitzea eta banderak bakarrik festak izaten direnean igotzea ez?. Hori izan da arrazoia.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Alegia, ekintza festiboetan bakarrik jarriko dugula bandera eta ez luktuosoak direnean, ezta?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baino luktuosoak asko daude, adibidez munduan emakume erailak, ETAk eraildakoak ere luktuosoak dira, torturatuak izan direnak eta horregatik hildakoak ere luktuosoak dira eta denok dakigun bide horri heldu ezkero badakigu non sartzen garen. Beraz, hori izan da arrazoia, besterik gabe.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bueno ba... botatzera pasatuko gara.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste zerbait esatekorik, norbaitek? Emiliano.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Yo en todo caso un poco, lo que se ha dicho en la reunión de portavoces, que es una moción que afecta en mayor parte digamos a la parte privada que a la parte institucional. No nos cabe la menor duda que las obras que dependen de la parte institucional como se dice en uno de los apartados se puede hacer todo lo que haga falta y más y en el resto pues tratar de que los propios sindicatos y los empresarios de alguna manera se vean forzados a entenderse y conseguir parar esta sangría de accidentes.

No cabe la menor duda de que esa es la intención y lo que pretendemos. No nos parecía correcto lo de la bandera, debido a que no aporta nada y lo único que podía dar lugar era a interpretaciones que no daba lugar en este momento y sobre esta moción en concreto y nos ha parecido bien que se retirase, y nada más.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Neu ere, beste kontu batzuk banituelako ba.... Batzordean parte hartzeko aukerarik ez dut izan, eta beraz han esango nituzkeenak edo orain hemen esango ditut.

Alde batetik mozioa, arazoaren gakoetara joaten ez dela iruditzen zaigu neurri handi batean. Nik uste dut Lan Prekarietatea eta Lanean

dagoen prebentzio faltak, arduradun zuzenak dituztela eta arduradun horiek, lan baldintza horiek osatzen dituzten enpresarioak direla. Enpresen mozkinak edo enpresen irabaziak biderkatuz joan dira azkenengo urteetan, baino lan-segurtasuneko zenbakiak edo datoak, orain dela urte dexente bezain kaxkarrak dira.

Munduko zifra handi eta galtzen garen horietara joan beharrean, bi miloi hildako esaten dugu eta uf..... abstrakto xamarra geratzen zait niri behintzat, bi milioi, oso zenbaki potoloa da. Euskalerrian, Euskalerrian baino gehiago Hego Euskalerrian, joan den urtean 130 hildakotik gora egon ziren lan istripuetan, 130 familik jasan behar izan zuten bere etxeko kide bat ogia irabaztera joan eta bertan geratu izana.

Egun hau egokia izango da baina nik uste dut erreibindikazio hau alderdi politikoen agendetan urte osoan egon beharko zukeela eta niri iruditzen zait neurri handi batean apirilaren 28 a iristen denean pixka bat akordatzen garela eta neurri batean Gabonetan zuhaitzean bolak jartzen ditugun bezalaxe ba.... bueno fetxa hauetan ba.... mozioak aurkezten ditugu. Baino benetan, honek, ez dakit zerbait ekarriko duen, nik animatu nahiko nituzke langile guztiak egun horretan sindikatoek proposatu dituzten ekintza, mobilizaioetan parte hartzera. Adibidez, LAB sindikatuak ordu beteko lan uztea proposatu du eta hemendik luzatu nahiko nieke gonbitea langile guztiei, LAB-ek egiten duen dialdietara, ESK-k, Comisionesek edo edozein sindikatuk egiten duena egiten duela parte hartzera gonbidatuko nituzke.

Eta beste alde batetik instituzioek hemen zeresan gutxi xamar eduki dezaketeela, ba.... nik ez dut iritzi hori konpartitzen, zeren azkenean instituzio horiek, beroiek, erabakitzen dute zer nolako garrantzia eman gai honi, zenbat ikuskatzaile jarri eta gaur egun Euskalerrian zer siniestrabilidade dagoen ikusita, zenbat ikuskapen egiten diren, ba... zenbakiak benetan penagarriak dira.

Metalerako Gipuzkoan uste dut bi ikuskari edo daudela, Gipuzkoako enpresa guztiak ikuskatzeko, beraz ez dakit bonolotoa tokatzea ia errazagoa ez ote den enpresa ikuskaritza bat egitea baino. Bueno hori igual pasatu egin naz, erretiratu egingo dut, baina bai ikuskapen oso urriak egiten dira. Nik uste dut hori indartu egin beharko litzatekeela, benetan prebentziorako beste politika batzuk garatu beharko lirateke, eta hor inplikazioa, gaur egun ez dagoen inplikazio bat guztiok eduki beharko genukeela. Langileetatik hasita, langileok ere gure lan baldintza duinak, gu, geu erreibindikatzen hasi behar gara, exigitzen hasi behar gara. Baina nik uste dut instituzioetatik asko egiteko dagoela oraindik.

Dena den, nahiz eta iruditzen zaigun, iritsi behar litzatekeen punturaino iristen ez dela, mozioaren espirituarekin ados gaude, bat gatoz eta nola ez, gure aldeko bozka.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek ?,Emiliano.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Nada más sea por la referencia, yo no estoy diciendo que las instituciones no tengan que decir, lo que si digo es que la moción tiene dos partes, una institucional y otra privada.

